

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jon Plazaola Larrañaga Johnny Platz

*Urretxu,
Gipuzkoa
(1982)*

Aurkibidea



Biografia



Urretxun jaioa. Ama Ezkiokoa du, aita urretxuarra zuen, eta bere idoloa zen aitona, berriz, Azpeitikoa zen: Juan Larrañaga uztarrigile eta txiste kontalaria. Bi anaietan zaharrena da Jon. Aktorea, gidoigilea eta telebista aurkezlea. Umetatik du imitazioak egiteko eta txisteak kontatzeko zaletasuna. Arte Ederrak ikasten hasi zen arren, laster beste bide bati ekin zion: umorezko balarriketak egiten hasi zen, bere kontura, eta horrek EITBra eraman zuen, umoregile eta aurkezle lanetara batik bat. Geroztik hainbat programatan hartu du parte gidoilari, aurkezle, aktore eta zuzendari bezala. Zinemako gidoigile ikasketak egin zituen, Madrilén. Antzerkia, telebista eta zinema, hirurak ezagutu ditu gertutik. Besteak beste, *Allí abajo* telesail arrakastatsuko protagonista izan zen. Elkarrizketaren unean (2020ko abenduan) ETB-1eko *Barre Librea* programan zebilen lanean, bi antzezlanekin esku artean eta *Madres* telesailaren 3. denboraldian parte hartzeko gertu. Bere ibilbidideari eta bizitzari buruzko elkarrizketa egin genion.

Zintak

URR-062

- **Proiektua:** Gazte gara gazte
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2020-12-18
- **Iraupena:** 115 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. 'Johnny Platz' ezizena

- **Erref:** URR-062/002
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:00:12. **Bukatu:** 00:01:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Bere ezizena nondik datorren azaltzen du, Arte Ederrak ikasten ari zen garaitik.

2. Duela 500 urteko plazaolatarrak eta santakrutzeko miraria

- **Erref:** URR-062/004
- **Iraupena:** 0:04:14. **Hasi:** 00:01:25. **Bukatu:** 00:05:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

"Todos los apellidos vascos" programan bere arbasoen aztarnak ikertu zituzten. Cristobal Plazaola arbasoak Legazpiko mirandaolan egiten zuen lana, eta santakrutzeko mirariaren lekuko izan zen. 500 urte geroago, bere aitak fundizio bateko labean egin zuen lana.

3. Familiako matxinsaltoa

- **Erref:** URR-062/006
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:06:21. **Bukatu:** 00:07:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:

Plazaolatarrak ez ziren oso urruti joan: kilometro gutxi egin zituzten mendeetan zehar. Bera izan da familiako matxinsaltoa.

4. Familiaren berri

- **Erref:** URR-062/008
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:07:47. **Bukatu:** 00:10:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Ama Ezkiokoa du eta aita Urretxukoa zen, Eguzkitza baserrikoa. Ama Zumarragara joan zen bizitzera. Aitona-amonak. Eguzkitza baserrira orain gutxi joaten da.

5. Aittitta Juan, bere idoloa

- **Erref:** URR-062/010
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:11:02. **Bukatu:** 00:13:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aittitta Juan (Juan Larrañaga "Uztarri") zen bere idoloa, oso umoretsua zelako eta kontalari aparta. Bergarako Pol-pol tabernan izandako bakarriketa batean txiste kontalari batekin gertatu zitzaiona kontatzen du.

6. Aittitta Juan, bere idoloa II

- **Erref:** URR-062/011
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:13:50. **Bukatu:** 00:16:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aittitta Juanek irratira deitzen zuen txisteak kontatzeko. Lazkao Txikiren estatuarekin erretratua atera zion behin aitonari. Telebistan ere agertu zen behin, "Herriko plaza" programan.

7. Aitonaren uztarria Sevillara

- **Erref:** URR-062/012
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:16:33. **Bukatu:** 00:18:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aitona Juan uztarrigilea zen, eta hark egindako uztarrietako bat Sevillara eramane zuen: 'Allí abajo' telesailean agertu zen, Iñakiren tabernan.

8. Kuriositatea beharrezkoa bizitzan

- **Erref:** URR-062/013
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:18:59. **Bukatu:** 00:20:42

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Aitona oso kurioa zen eta bera ere bai. Anekdota bat kontatzen du, Indiatik bueltan esan ziona. Fernando plaentxiarraren berri ere aitona bidez izan zuen. Txiste bat kontatzen du.

9. Familiako rola: anaia Xabier eta bera

- **Erref:** URR-062/014
- **Iraupena:** 0:04:03. **Hasi:** 00:20:42. **Bukatu:** 00:24:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Bere rola familian. Rolak aldatuta dauzkatela uste du. Bera da zaharrena, baina abenturazaleagoa da Xabier anaia baino. Asko miresten du anaiaren egonarrria, gauza txikiei eta inguruari etekina ateratzeko gaitasuna. Fantasia umetatik gustatzen zaio.

10. Antzerkizalea umetatik

- **Erref:** URR-062/015
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:24:45. **Bukatu:** 00:27:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Umetan handitan izan nahi zuena. Denek izan nahi zuten futbolari, baina antzerkizalea eta plazagizona izan da umetatik. Imitazioak ere egiten zituen: gaitasuna dauka horretarako. Kantatzea ez zaio gustatzen.

11. Kapitaina Urola futbol taldean

- **Erref:** URR-062/016
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:27:27. **Bukatu:** 00:29:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

Urola futbol taldean kapitaina izan zen. Taldelana gustuko izan du beti, giro ona sortzea. Errodajeetan ere gogoratu izan da kapitain izan zen garaiekin: baditu antzekotasunak.

12. Arte Ederrak eta "espejismoaren teknika"; lehenengo lanak oholtza gainean eta telebistan

- **Erref:** URR-062/017
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:29:49. **Bukatu:** 00:33:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Arte Ederrak ikastea erabaki zuen, karikaturak egitea gustatzen zitzaiolako eta komikiak. "Espejismoaren teknika" sortu zuela dio. 2. zikloan, argazkigintza eta ikus-entzunezkoak landu zituztenean, hortik jo nahi zuela konturatu zen. Bakarriketak egiten hasi zen, 3. mailan zegoela, eta handik ETB-1eko "Kuxkuxeroak" programan hasi zen lanean. Zine ikasketak egin zituen gero, Madrilén.

13. Lehenengo bakarriketak

- **Erref:** URR-062/018
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 00:33:19. **Bukatu:** 00:37:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Bakarriketak egiten nola hasi zen kontatzen du. Urretxun McCrea Clarke irlandarra bakarriketak egiten ari zen, eta harekin hasi zen. Tabernari moduan lanean zebilela egin zuen lehenengoa.

14. Madrilera ikastera: hiri oso irekia

- **Erref:** URR-062/019
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:37:10. **Bukatu:** 00:40:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Madrilera joan zen ikastera: gidoigintza. Kariñoa hartu zion hiriari; lehen Bartzelona zuen kuttunagoa. Bidaiatzeak ikuspegia zabaltzeko balio duela dio.

15. Euskaraz eta gaztelaniaz, bietan ondo

- **Erref:** URR-062/020
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:40:30. **Bukatu:** 00:43:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Gaztelaniaz ondo moldatzen da, baina ez du ezer berezirik egin hori lortzeko. Denboraldi bat hemen pasatuz gero euskal azentuarekin joaten da. Anaiari ezin dio gaztelaniaz hitz egin. Etxean euskaraz egin dute beti, baina Urretxu-Zumarragan gaztelania ere asko entzuten zen.

16. Euskal telebistako euskarazko lanen alde

- **Erref:** URR-062/021
- **Iraupena:** 0:03:52. **Hasi:** 00:43:50. **Bukatu:** 00:47:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

ETB-1en hasi zen, baina ETB-2n ere egin zuen programa bat, gaztelaniaz: Pika-pika. Orain ez dio zentzu handirik ikusten ETB-2n erdaraz ezer egiteari. Hemen lan egitearen arrazoia euskaraz sortzea dela dio. Euskarazko telesailak gaztelaniaz azpigitulatzaren alde dago. Fikzioa euskaraz egiteko gogoz dago.

17. Gure txikitasunean handi

- **Erref:** URR-062/022
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:47:42. **Bukatu:** 00:49:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gure txikitasunean euskaraz kalitatezko gauzak egiten ditugula uste du, eta hori ezagutaraztea komeni dela, konplexurik gabe.

18. Euskararen balioa eta globalizazioa

- **Erref:** URR-062/024
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:49:13. **Bukatu:** 00:50:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Euskara zer den berarentzat. Kanpoan ibili ondoren are gehiago baloratzen du. Globalizazioa gure alde jarri behar dugu euskara plazaratzeko.

19. Sare sozialetako hizkuntza politika

- **Erref:** URR-062/025
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:50:59. **Bukatu:** 00:54:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Teknologia berriak eta sare sozialak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Sare sozialetan euskara erabiltzeagatik izan ditu ika-mika batzuk. Orain 'Losers' antzezlanari ari dira antzezten, euskaraz, eta horregatik euskaraz idazten dituzte mezuak. 'Allí abajo' telesailari buruz, berriz, gaztelaniaz egitea agintzen dio logikak.

20. Hizkuntza politizatzea

- **Erref:** URR-062/026
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:54:04. **Bukatu:** 00:55:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Teknologia berriak eta sare sozialak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Hizkuntza politizatzeke joerari buruz hitz egiten du, adibide bat jarriaz.

21. Chicagora joan zen ingelesa ikastera

- **Erref:** URR-062/027
- **Iraupena:** 0:03:53. **Hasi:** 00:55:33. **Bukatu:** 00:59:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Oporrak
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Chicagon egon zen hilabetez, ingelesa ikasten. New York eta Los Angeles ere aipatzen ditu. Anekdotak bat kontatzen du. Ingelesekin film labur batean antzeztu du. Aitziber garmendia joan zen gero Chicagora.

22. Fikzioa eta euskaraz, bere lehentasunak

- **Erref:** URR-062/028
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:59:26. **Bukatu:** 01:02:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

Aktore sentitzen da batez ere, aurkezle edo gidoigile baino gehiago. Fikzioa euskaraz egitea da bere lehentasuna. Entretenimenduko telebista bigarren tokian legoke. "Anti-aurkezleak" direla esaten dute Aitziber Garmendiak eta berak. Pertsonaiak egiten disfrutatzen dute gehien.

23. Egin ahala ikasi du antzezten

- **Erref:** URR-062/029
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 01:02:03. **Bukatu:** 01:04:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Aktore ikasketarik ez du egin: bizitzaren eskolan ikasi du antzezten, ekinaren ekinez. Badu asmoa geratu, eta antzerkigintzako tailerretara joateko. Praktikarekin asko ikasten da, antzezlanetan adibidez.

24. Bost urtean Sevillan, "Allí abajo" telesaila grabatzen

- **Erref:** URR-062/030
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 01:04:46. **Bukatu:** 01:06:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera

Laburpena:

"Allí abajo" telesailean lanean asko ikasi zuen. Bost urte egin zituen Sevillan. Bere ustez, protagonistak izateak erantzukizunetik gehiago dauka pribilegiotik baino.

25. Wazemank-en gidoilari

- **Erref:** URR-062/032
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 01:06:42. **Bukatu:** 01:08:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

Wazemak telebista programan gidoilari moduan hasi zen lanean. Anjel Alkainekin aktore moduan lan egiteko aukera izan zuen geroago. Alkain euskal umoregintzan erreferentetzat dauka.

26. Zuzendari lanak; "Barre librea" programa

- **Erref:** URR-062/033
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 01:08:27. **Bukatu:** 01:10:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

Zuzendari lanetran ere egon da ETB-1eko hainbat programatan. 'Barre librea' programan ere Aitziber Garmendia eta biak dira zuzendariak. Umorea egiteko duten moduaz hitz egiten du.

27. 'Allí abajo' telesailera nola iritsi zen

- **Erref:** URR-062/034
- **Iraupena:** 0:04:49. **Hasi:** 01:10:33. **Bukatu:** 01:15:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera

Laburpena:

ETBn denetik egin behar izaten dute. Harritu egin zen 'Allí abajo' telesailean lanean hasi zenean, aktore lana "bakarrik" egin behar zuelako. Oscar Terolek eman zion albistea. Casting-ean jende askok hartu zuen parte. Nolatan joan zen azaltzen du. María León aktorea ezagutzeak ilusioa egiten zion.

28. 'Famatuak' eta 'ezagunak'

- **Erref:** URR-062/036
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 01:15:32. **Bukatu:** 01:18:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

Ez du uste 'famatua' denik. Ezaguna egitea kiroltasunez hartu behar duela dio. Bizitza ez zaio erradikalki aldatu. Herrian jendeak ezagutzea arraroa egiten zaio.

29. Esperientzia ederra Sevillan

- **Erref:** URR-062/037
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 01:18:44. **Bukatu:** 01:21:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Aisia » Oporrak

Laburpena:

Bost urtean Sevillan izandako esperientzia ederra izan zela dio. Bere aitak Cadizen egin zuen soldaduska, eta gustuko tokoa da etxeko guztientzat. Hango umorea asko gustatzen zaio.

30. Mugarriak bere ibilbidean

- **Erref:** URR-062/039
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 01:22:23. **Bukatu:** 01:25:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Bere ibilbideko mugarriak aipatzen ditu: "Kuxkuxeroak", "Europa euskaraz", "Wazemank", "Kontrako eztarria" eta "Barre librea". Fikzioan "Allí abajo" aukeratuko luke. Orain "Madres" telesailarekin dabil. Lan gutxi egin du zinemari. "Que nadie se mueva" eta "Losers" antzezlanak.

31. Aitziber Garmendiarekin duen laguntasuna

- **Erref:** URR-062/040
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 01:25:33. **Bukatu:** 01:27:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

Aitziber Garmendia "Finlandia" programan ezagutu zuen gertutik, eta ordutik oso lagunak dira. "Kontrako eztarria" programan koinziditu zuten.

32. "Losers" antzezlana eta gizarteko patroiak; COVID-19

- **Erref:** URR-062/041
- **Iraupena:** 0:04:24. **Hasi:** 01:27:48. **Bukatu:** 01:32:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:

'Losers' antzezlaniari buruz hitz egiten du, gizarteak markatzen duen ardatzetik kanpo bizitzeari buruzkoa. COVID-19aren garaian argi geratu omen da gizarte sumisoa eta iniziatiba gabea bihurtu garela.

33. Sare sozialen papera gizartean

- **Erref:** URR-062/042
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 01:32:12. **Bukatu:** 01:34:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Teknologia berriak eta sare sozialak
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:

Sare sozialen papera gizartean, neurri gabeko indarra. Aurreko belaunaldien ikuspegia. "Black mirror" telesaileko gertaeretatik gero eta gertuago gaude.

34. Sare sozialen papera gizartean II

- **Erref:** URR-062/043
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 01:34:54. **Bukatu:** 01:38:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Teknologia berriak eta sare sozialak
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:

"Second life" edo bigarren bizitza bat erakusten da sare sozialetan, lehenengo bizitza zaindu gabe. Sare sozialetan oso modan jarri da umorea zentsuratzea.

35. Umorea egitea ez da erraza eta "gauza serioa" da

- **Erref:** URR-062/044
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 01:38:42. **Bukatu:** 01:42:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Umorea egitea ez da erraza, eta beti minduko du baten bat. Umorea prozesu moduan hartu beharko litzateke. Komedia "alaba txikia" da, publiko orokorarentzat balio duena, baina ez 'adituentzat'.

36. Euskal umorea eta umore unibertsala

- **Erref:** URR-062/045
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 01:42:27. **Bukatu:** 01:45:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Euskal umorea eta euskaldunek egindako umorea. Umore unibertsala. Euskara da desberdintzen gaituena, gure berezitasuna. Euskaraz egindako umoregintzak osasun ona daukala dio: txisteak eta mee-ak euskaraz.

37. Batua eta euskalkiak umoregintzan

- **Erref:** URR-062/046

- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 01:45:22. **Bukatu:** 01:49:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

"Barre librea" programan euskalkien aldeko apustua egin dute bereziki. Garai batean naturaltasun falta sumatzen zuen telebistako umorean. "Wazemank"-ek bide bat ireki zuela uste du. Hori bai, batua ere izan daiteke kolokiala. Euskalkiak altxor handia dira. Antzerkigintzan euskalkiek kolorea ematen diete pertsonaiei.

38. Euskal zinemagintza, kalitatezkoa

- **Erref:** URR-062/049
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 01:50:23. **Bukatu:** 01:53:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Euskal zinemagintzan oso lan onak ekoiztu dira betidanik, baina orain ari dira errekonozimendua jasotzen. "Aupa Etxebeste", "Kutsidazu bidea Ixabel" eta "Erlauntza" aipatzen ditu, eta Moriartiren lanak.

39. Aholkuak aktore izan nahi duten gazteentzat

- **Erref:** URR-062/050
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 01:53:39. **Bukatu:** 01:54:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Gustatu ezker aurrera jarraitzeko esango lieke aktore izan nahi duten gazteei.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-06

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com